




Zer dira zuhaitza
eta basoa?


K E B B E

Zuhaitzen arteko elkarreragina eta baso-geruzaren nozioa

Ikuspegi teknikotik, **basoa honako hau da: zuhaitz-eremu bat, gutxienez 0,5 hektareako azalera duena (5.000m²), trinko samarra, zuhaitz-masa batez edo batzuez osatua. Zuhaitz-masa horiek 5 metrotik gorako altuera dute eta % 10eko baso-estaldura.** Basoetan badira beste landare- eta animalia-espezie batzuk ere. **Zuhaitzak bakartuta hazten direnean**, haien adaburuak (hostoek osatzen dituzten adaburuak) hedatu egiten dira, ahalik eta argi gehien hartzeko, **eta zabaleran hazten dira**. Beste zuhaitz batzuekin **lehiatzen direnean**, baso trinkoetan gertatzen den bezala, orduan ez dute zabaleran hazteko aukera berbera, eta argia bilatzeko modua altueran ahalik eta gehien haztea da, hots, **altueran hazten dira**.



1- Zuhaitz bakartua: Zuhaitz hau baso batetik kanpo hazi da, beste zuhaitz batzuen aldetik eragozpenik jaso gabe: enborra laburra da, baina adaburua oso zabala.

2- Baso-zuhaitza: Zuhaitz hau basoan hazi da, gisa bereko indibiduoekin lehiatuz: enborra luzea da, argia jaso ahal izateko bere espezie-kideen gainetik, eta adaburua estua da.

3- Zuhaitza basoberan: Adartxo bakoitza gisa bereko indibiduoekin lehiatzen da: txikiak eta estuak dira, baina kopuru aldetik ugariak.

4- Lapatutako zuhaitza: Zuhaitz hau baso batean hazi da: gizakiek haren hazkundera mugatu dute altueran, adarrak altura jakin baten gainetik erregulartasunez moztuz, baina haren enborrak diametro handia izan dezake.



Zer dira zuhaitza eta basoa?

Zuhaitzen arteko elkarreragina eta baso-geruzaren nozioa

I- Zuhaitzen arteko elkarreraginak: lehia eta sinbiosia

Argia lortzeko lehia

Basoko lurzorura iristen den argia zuhaitzen kanopiatik iragazita dago, neurri handiagoan edo txikiagoan, haien lodiera eta hostotzaren arabera. Horrek hazitik sortzen diren zuhaitz gazteetan du eragina bereziki; **itzaleko espezieek** (heliófilas) **argi-maila baxuak toleratzen dituzte** eta gai dira beste landare batzuen itzalpean hazteko; **argitako** espezieek (heliofilak), berriz, **leku argitsueta haztea nahiago dute**. Zuhaitzen artean badago argia lortzeko lehia bat, intraespezifiko edo interespezifiko izan daitekeena.


Espezie bereko zuhaitzen arteko lehiak (lehia intraespezifiko) espezie horren populazioaren dentsitatearen erregulaziora eramaten du (**mendeko zuhaitzak hil egiten dira mozten ez badira**). Espezie desberdinen kasuan, **lehia interespezifiko** lagungarria izan daiteke espezie baten ugaritasunerako, bestaren kaltetan, edota haren **esklusibotasuna ekarri ere egin dezake**. Kasu horretan, esaten da **ondorioztatutako baso-masa monoespezifiko** dela.

Sustraien bidezko sinbiosia

Onddoek modu estuan kooperatzen dute zuhaitzen sustraiekin, mikorrizak eratuz. **Onddoek** fotosintesiak eragindako **asimilatuak jasotzen dituzte** zuhaitzetatik, eta aminoazidoak sustraiei irazpenetik. Horren truke, **onddoak elementu mineralak** -fosforoa, kaltzioa eta potasioa, besteak beste- **ematen dizkio zuhaitzari**, eta areagotu egiten du sustraiek uraren bila egiten duten esplorazioa. **Zuhaitzen eta onddoen arteko elkarketa hori onuragarria da elkarrentzat**, eta **sinbiosi** deitzen zaio.

II- Geruzaren eta basoaren egituraren nozioa

Baso batean, maila edo geruza batzuk bereizi daitezke:



1-Zuhaitz-geruza: 8 metroko altuera edo gehiago duten zuhaitzez osatuta dago. Geruza horren barruan, zuhaitz menderatzaileak eta mendekoak bereizi ditzakegu. Lehenengoak altuagoak dira, eta bigarrenak zuhaitz-kanopiaren azpian hazten dira.

2-Zuhaixka-geruza gehienez 7 metroko altuera duten zuhaixkez osatuta dago.

3-Belar-geruza gehienez 1,5 metroko altuera duten lastodun eta landarez osatuta dago.

4-Goroldio-geruza: liken eta goroldioz osatuta dago, eta milimetrotan neurtze da.

5-Sustrai-geruza: sustraiekin osatuta dago, baina baita floraz eta lurzoruko mikrofaunaz ere.




Zer dira zuhaitza eta basoa?

Zuhaitzen arteko elkarreragina eta baso-geruzaren nozioa

Baso-kudeatzaileak zuhaitz-geruzako zuraren ekoizpenaz interesatzen dira. Geruza hori osatzen duten baso-masek honako egitura hauek izan ditzakete:

- **Erregularra**, zuhaitzek antzeko adin, diametro eta altuerak izanez gero.
- **Irregularra**, zuhaitzen artean diferentzia handiak baldin badaude adin, diametro eta altuera aldetik.



Kudeatutako basoen itxura giza erabileraren mende dago, eta hau aldatu egin da denborarekin. **Basoberako** basoen kudeaketa **ugalketa begetatiboa** edo **motzondoaren kimuetan** oinarritzen da: moztu eta gero, zuhaitza berriro hazten da, motzondo berberetik zenbait zurtoin eratu. Kudeaketa mota hori asko erabiltzen zen iraganean, berotzeko egurraren ekoizpenerako. Horren eragozpena da diametro txikiko zura ekoiztera eramaten duela, eta zur hori ez dela egokia –adibidez- etxeak eraikitzeko.

Basobera mozten denean, **lurzoruko hazi batzuk ernaldtu egin daitezke**, operazioaren ostean argitan geratzen direlako. Hazi horietatik sortutako zuhaitzei hazten uzten badiegu eta babesten baditugu, **jatorriko basoberakoa baino handiagoa den diametroa izatera iritsiko diren zuhaitzak lor ditzakegu**, zahartzen utziz gero. Basobera baso-masan geratzen da, sutarako egurraren ekoizpena bermatzeko. Horrela sortu zen **mendi ertainekoa** deitzen zaion baso-teknika bat, jabetza pribatu txikietan oso hedatuta dagoena.

Denborak aurrera egin ahala, **giza teknologiak eboluzionatu egin du** energia-sektorean (ikatz, petrolio, elektrizitatea) eta industrian (zerrategiak). Halaber, **gizartearen eskaria ere aldatu da**; hala, belaontzien garaian, gero eta diametro handiagoa zuen zura behar zen (ehunaka urtetan ekoiztutako zura); orain, berriz, diametro txikiagoko zuhaitzen taulak mihiztatu eta itsatsi daitezke. Hala, baso-kudeaketak **baso erregularrerantz eboluzionatu du**. Izan ere, berau errazago kudeatzen da eta euren **hazkunde azkarragatik** aukeratutako haziak erabiltzea ahalbidetzen du. Gainera, **ustiapen mekanizatua errazte ahalbidetzen du, egurgileak urri diren testuinguru batean**. Gaur egun, zurak gero eta interes handiagoa pizten du energia-iturri gisa, baina batez ere ezpala edo pelleten forman, enborren forman baino gehiago.

Egoera jakin batzuetan, beharrezkoa da **baso-estalkia mantentzea eta aldi berean zuraren ekoizpena bermatzea**. Hori zenbait arrazoirengatik izan daiteke erabilgarria: paisaiaren estetikagatik, lurzoria higaduraren kontra babesteko, edo luizietatik babesteko. Hori lortzeko, baso-kudeatzaileak adin desberdineko zuhaitzak mantentzen dituzte baso berean, eta helduta daudenean moztzen dituzte. **Baso irregularraren printzipioa da**. Adin guztietako zuhaitzak lurzati berean mantentzea lortzen denean, kudeaketa dinamiko baten bidez, **mendi bakanduaz** hitz egiten dugu.